

## AUTOEBALUAZIO PROZEDURAK: EBALUAZIO JARRAIA

### ERIZAINNTZA OTORRINOLARINGOLOGIKOA

#### Test-erako proba, ORL 4.gaia:

- 1) Bertigo zentralak eta periferikoen arteko ezberdintasun nagusia:
  - a. Zentralak birakariak eta neurobegetatiboak dira
  - b. Zentralak beti hipoakusiarekin batera doaz
  - c. Periferikoak beti birakariak dira
  - d. Lesioaren kokapena da
- 2) Meniere gaixotasunari dagokionez aukeratu esaldi okerra:
  - a. Erdiko belarriaren alde biko desoreka anomaloa da
  - b. Gehienetan helduetan sortzen da
  - c. Sintoma tipikoak entzumen galera, akufenoak eta bertigoak dira
  - d. Akumetria eta froga vestibularrekin diagnostikatzen da
- 3) Sindrome bertiginosoen sintoma:
  - a. Ibiltzeko oreka falta da
  - b. Egoera birakaria da
  - c. Krisi neurobegetatiboa da
  - d. Denak egokiak dira
- 4) Sindrome bertiginosoaren zioa:
  - a. Buruko mina da
  - b. Medikazioa da
  - c. Buruko tumorea da
  - d. Denak egokiak dira
- 5) Zein da froga vestibularren funtzio nagusia?
  - a. Krisi neurobegetatiboak diagnostikatzea da
  - b. Sindrome bertiginosoa diagnostikatzea da
  - c. Meniere gaixotasuna diagnostikatzea da
  - d. B eta C egokiak dira

### Egia ala gezurra, ORL 4. gaia:

1. Soinu guztiek belarriari kalte egin diezaiokete.
2. Bertigoak bi motakoak dira: zentralak eta periferikoak.
3. Meniere gaixotasuna entzumen galerarekin batera ematen da.
4. Bertigo periferikoak mugimendu birakariekin batera doaz.
5. Bertigoak beti akutuak dira.

## ERANTZUNAK (ORL, 4. gaia):

### Testa:

- 1) C
- 2) A
- 3) D
- 4) D
- 5) D

### Egia ala gezurra:

- 1) Gezurra
- 2) Egia
- 3) Egia
- 4) Egia
- 5) Gezurra